
KODEEN ERABILERA LEHEN HEZKUNTZAN:

Komunikazioa, Hizkuntzak eta Artea

Gradu Amaierako Lana

EGILEA: Stoleru, Gianina Isabella

ZUZENDARIA: Ezeiza Ramos, Ainhoa

2022

Laburpena

Kodeen erabilera Lehen Hezkuntzan: Komunikazioa, hizkuntzak eta Artea izeneko lan honetan, Lehen Hezkuntzako ikaskuntza errazten duten kodeen erabilera aurkeztuko da, eta, zehazki, kodeen erabilera hori komunikazioaren, hizkuntzen eta artearen esparruan erabiliko da.

Lehenengo eta behin, gai hau aukeratzeko arrazoiak azalduko dira, baita lanaren oinarri teorikoak ere. Gero, lanaren helburuak aurkeztuko dira eta, helburuetatik abiatuta, gauzatu den metodoa erakutsiko da.

Metodoari dagokionez, lan hau egiteko metodoa bi fasetan banatu da. Lehenengo fasean, hiru kode desberdinen behaketa eta ikerketa egin da. Zehazki, hizkuntza-kodea, ikusizko kodea eta komunikazio-kodearen erabilgarritasuna aztertu da. Izan ere, fase honetan ingelesari buruzko galdetegi bat, irakasgai baten unitatea eta, azkenik, komiki bat egin da.

Bigarren fasean, aldiz, esku-hartze bat gauzatu da. Esku-hartzearen oinarriak diziplinarteko hezkuntza eta kodeen erabilera izan dira. Lehenengo fasean behatu diren hiru kode-moten ezarpena eman da eta, kasu honetan, hiru jarduera burutu dira, Artea, emozioak eta Gizarte Zientzien gaiak landu dituztenak.

Honen ostean, ikerlanaren emaitzak argituko dira, eta metodoa lanaren helburuei erantzun ote dioten ala ez aztertuko da.

Azkenik, lan honek izan dituen ondorioak eta mugak aurkeztuko dira, eta etorkizunean egin daitezkeen hobekuntzei buruz ere hitz egingo da.

Hitz gakoak: *ikusizko kodea, komunikazio-kodea, ikusizko alfabetizazioa, antsietate linguistikoa, kultura anitzeko hezkuntza, dekodifikazioa, trebetasun artistikoa.*

Resumen

En este trabajo titulado “El uso de códigos en Educación Primaria: Comunicación, Idiomas y Arte” se presentará el uso de códigos para facilitar el aprendizaje en educación primaria y, en específico, estos códigos se usarán en el ámbito de la comunicación, los idiomas y el arte.

Para comenzar, se explicarán las razones por las que se ha escogido este tema y se presentará la base teórica. Luego, expondré los objetivos del trabajo y, partiendo de los objetivos, desarrollaré el método que he utilizado.

Respecto al método, éste se ha dividido en dos fases. En la primera fase se ha llevado a cabo una observación e investigación sobre tres códigos diferentes. Estos códigos son el código idiomático, el código visual y el código comunicativo. Y para analizar la utilidad de estos códigos, se ha realizado un cuestionario sobre el inglés, la unidad de una asignatura y, por último, se han analizado unos cómics hechos por los alumnos.

Por otro lado, en la segunda fase se ha llevado a cabo una intervención. Los fundamentos de esta intervención han sido la educación interdisciplinar y el uso de códigos. Por tanto, en esta fase se han aplicado los tres códigos que previamente se habían investigado en la primera fase. Para aplicar estos códigos, se han realizado tres actividades sobre el arte, las emociones y las Ciencias Sociales.

Después de esto, se presentarán los resultados del trabajo y se reflexionará sobre si las actividades han respondido a los objetivos o no.

Finalmente, expondré las conclusiones y los límites de este trabajo y, asimismo, explicaré las posibles mejoras que se pueden hacer en el futuro.

Palabras clave: *código visual, código comunicativo, alfabetización visual, ansiedad lingüística, educación multicultural, decodificación, habilidad artística.*

Abstract

In this paper titled “The use of codes in Primary Education: Communication, Languages and Art” the use of code to facilitate learning in primary school will be presented, and, specifically, this use of codes will be applied in the fields of communication, languages and the arts.

Firstly, I will explain the reasons for choosing this subject matter, and I will also introduce the theoretical basis of this paper. After that, I will describe the objectives of the paper and, taking into account these objectives, I will clarify the method that has been carried through.

Regarding the method, it has been divided into two phases. On the one hand, in the first phase I carried out an observation and investigation about three different codes, which are the idiomatic code, the visual code and the communicative code. In order to analyze the usefulness of these codes, I planned an English language questionnaire, the unit of a subject and, lastly, I studied some comics done by students.

On the other hand, the second phase is composed by an intervention. The aims of this intervention have been the interdisciplinary education and the use of codes. Thus, the codes that were previously analyzed in the first phase have been used to create three activities about the arts, emotions and Social Sciences.

Subsequently, the results of this paper will be presented and we will research on whether the activities have answered the objectives or not.

Finally, the conclusions and the limits of this paper will be reflected upon, and the improvements that can be done in the future will be explained as well.

Keywords: *visual code, communicative code, visual alphabetization, language anxiety, multicultural education, decodification, artistic ability.*

Aurkibidea

0.	LABURPENA	1
1.	LANAREN SARRERA	6
2.	LANAREN JUSTIFIKAZIO PERTSONALA	7
3.	LANAREN OINARRI TEORIKOAK	9
3.1.	Kultura, teoria ekologikoa eta harreman parasozialak	9
3.2.	Komunikabideak, herritarrak eta komunikazioa	10
3.3.	Ikusizko alfabetizazioa	11
3.4.	Hizkuntzak, antsietate linguistikoa eta iragazki afektiboa	12
3.5.	Mekanismoak, emozioak eta teknologia	14
3.6.	Artea, kodeak, teknologia eta konpetentziak	15
4.	LANAREN HELBURUAK	20
5.	LANAREN METODOA	21
5.1.	Metodoaren lehenengo fasea: Behaketa eta ikerketa	22
5.1.1.	Ingelesari buruzko galdetegia	23
5.1.2.	Natur Zientzietako unitatea	23
5.1.3.	Komikiak	24
5.2.	Metodoaren bigarren fasea: Esku-hartzea	25
5.2.1.	<i>Pertsona bikainaren</i> jarduera	25
5.2.2.	Tximeleta Efectua	25
5.2.3.	<i>Gure Mundua</i> murala	26
6.	METODOAREN EMAITZAK	27
6.1.	Lehenengo fasearen emaitzak	27
6.1.1.	Ingelesari buruzko galdetegiaren emaitzak	27
6.1.2.	Natur Zientzietako unitatearen emaitzak	29
6.1.3.	Komikien emaitzak	30
6.2.	Bigarren fasearen emaitzak	30
6.2.1.	Pertsona bikainaren jardueraren eta Tximeleta Efectuaren emaitzak	30
6.2.2.	<i>Gure Mundua</i> muralaren emaitzak	32
7.	LANAREN ONDORIOAK	34
8.	LANAREN MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	36
9.	ERREFERENTZIAK	38
10.	ERANSKINAK	40
10.1.	Lehenengo eranskina: Ingelesari buruzko galdetegiaren emaitzak	40
10.2.	Bigarren eranskina: Natur Zientzietako azalpenen aurkezpenak	83

10.3.	Hirugarren eranskina: Natur Zientzietako ikasleen kartulinak	86
10.4.	Laugarren eranskina: Kartulinen koebaluazioaren errubrika	92
10.5.	Bosgarren eranskina: Natur Zientzietako errepasso-fitxa	94
10.6.	Seigarren eranskina: Natur Zientzietako azterketa	100
10.7.	Zazpigarren eranskina: Ikasleek egindako komikiak	104
10.8.	Zortzigarren eranskina: Ikasleek egindako <i>Pertsona Bikainaren</i> emaitzak	118
10.9.	Bederatzigarren eranskina: Tximeleta efektuaren hausnarketak	158
10.10.	Hamargarren eranskina: Muralaren teoriaren aurkezpenak	180
10.11.	Hamaikagarren eranskina: Bikoteen lana egiteko egitura	194
10.12.	Hamabigarren eranskina: Teknika artistikoen aurkezpena	197
10.13.	Hamahirugarren eranskina: Ikasleek egindako bikoteen aurkezpenak	199

1. LANAREN SARRERA

Kodeen erabilerari buruzko lan honetan, 2021. urtean urtarrila eta apirila bitartean eta, gero, urria eta abendua bitartean egindako ikerketa aurkezten da. Ikerketa honen helburu nagusia Lehen Hezkuntzako ikasgelan ikusizko kodeen erabileraren eraginkortasuna ikertzea da. Era berean, lan honetan aurkezten diren hizkuntza- eta komunikazio- kodeen eta ikusizko kodeen babeslea naizela, eta kode hauek ikastetxe-curriculumaren edukien irakaskuntzaren eta ikasleen ikaskuntza-prozesuaren bideratzaile gisa ikusten ditut.

Gauzak horrela, lan honen bidez jakin nahi da zein kode mota diren beste batzuk baino eraginkorragoak, eta kode horiek erabiltzeak ikasleei hobeto ikasten eta besteekin komunikatzen eta hobeto adierazten lagun diezaieketen. Hori jakiteko, hainbat jarduera egin dira Vitoria-Gasteizko bi ikastetxetan. Alde batetik, urtarriletik apirilera bitartean, Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleekin jarduerak egin ziren ikastetxe publiko batean. Eta, bestetik, urritik abendura arte bi proiektu egin ziren Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleekin itunpeko ikastetxe batean.

Jarduerari eta proiektuari dagokienez, lehenik bosgarren mailako ikasleekin ingelesa ikasteko ikastetxean erabili den metodoa aurkeztuko da, eta irakasteko metodo horrek ikasleei autoestimua handia izaten, ingelesari buruzko iritzi positiboa izaten eta ikasleek ingelesa eguneroko bizitzan integratu ahal izan duten aztertuko da. Ondoren, Natur Zientziei buruzko proiektua aurkeztuko da, seigarren mailako ikasleekin egin dena. Proiektu honen helburua ikusizko materialak erabiltzea izan da, hala nola marrazkiak eta eskemak, testuliburuko gai oso baten edukiak azaltzeko.

Hirugarrenik, bosgarren mailako ikasleekin arteari eta emozioei buruz egin diren jarduerak aurkeztuko dira. Ikasleek autoezagutza eta Tximeleta Efectua bezalako kontzeptuak aztertu behar izan dituzte. Laugarrenik, seigarren mailako ikasleekin *Gure Mundua* izeneko murala egin da. Mural kolektibo eta interaktibo bat sortzea izan da helburua, ikasleek munduari buruz duten ikuspegiari buruz, eta egungo eta iraganeko artista eta aktibista sozial batzuek egin duten aldaketa sozial eta kulturalari buruz sortu da murala.

Jarduera horiek guztiak azaldu ondoren, gai horiek ikasleen dimentsio pertsonalerako, akademikorako eta emozionalerako egokiak eta esanguratsuak izan diren jakiteko asmoa du lan honek.

2. LANAREN JUSTIFIKAZIO PERTSONALA

Bost urte nituenean gurasoekin joan nintzen Euskal Herrira. Haur txikia nintzen, ez nekien kultura hitzak zer esan nahi zuen. Berez, hainbat kulturarekin hazi nintzen. Alde batetik, gurasoek irakasten zidaten kultura zegoen; gero, eskolan ikasten nuen kultura; eta, azkenik, komunikabideen eta literatura-liburuen kultura zegoen.

Txikia nintzenetik pelikulek liluratzeko ninduten. Izugarri gustatzen zitzaidan nola bi ordutan pertsona batek mila gauza berri ikas zitzakeen. Batez ere, Estatu Batuetako 80ko eta 90eko hamarkadako filmak ikusten nituen, *Matilda*, *Gremlins* eta *The Goonies* bezalako filmak. Film horiei esker sortu zitzaidan hizkuntzetarako grina, batez ere ingeleserako. Egunero errumanieraz hitz egiten nuen gurasoekin, gero eskolan gaztelaniaz eta euskaraz hitz egiten nuen, eta etxera iristean filmak ingelesez ikusten nituen.

Bestetik, irakurtzen nituen liburuak R. L. Stineren Amesgaiztoen bilduma zen eta Elia Barceloren Cordeluna. Liburu misterioitsuak, beldurrezkoak, zientzia-fikziozkoak eta historikoak ziren gehienak. Ikusten nuen film bakoitzak eta irakurtzen nuen liburu bakoitzak gaiz eta pertsonaz betetako unibertso batera eramaten ninduen. Hasieran, hitzei adi nengoen, eta hitzen esanahi guztiak ateratzen saiatzen nintzen. Hala ere, gaia ondo ulertzeko, esaten ez diren hitzei erreparatu behar diegu, hau da, ezkutuko hitzei erreparatu behar diegu, ezkutuko mintzairari. Filmen kasuan, ikusten den guztia garrantzitsua da. Eta liburuen kasuan, deskribapen guztiak dira garrantzitsuak. Hitz eta irudi bakoitzak mundu batean murgiltzen gaitu. Agertokia, erabiltzen diren koloreak, pertsonaien arropa, pertsonaien mugimenduak eta keinuak ditugu. Beraz, txikitatik interesa izan dut hitzik gabeko komunikazioan eta hizkuntzetan.

Ingelesari dagokionez, gogoan dut Lehen Hezkuntzan ez nuela arreta handirik jartzen ikasgelan. Ingeleseko klaseak ikasgai berri bat ikasteko testuliburua erabiltzean zetzan, eta gero ariketak egiten eta zuzentzen ziren. Gogoan dut ez nuela zailtasunik izaten ikasgaiak ulertzeko, eta ongi egiten nituen ariketak. Hala ere, gogoan dut ere ariketaren erantzuna ondo egiten ez nuenean, asko zapuzten nintzela. Gramatika-arauen ikasgaiekin zerikusia zuten ariketekin bakarrik gertatzen zitzaidan hori, filmetan ikasitako ingelesa arrunta zelako. Horregatik, iruditzen zait egon naizen ikastetxe guztietan ingelesa irakasgaia isolatuta egon dela, eta ikasle gehienentzat ingelesa ingeleseko klasean bakarrik existitzen dela.

Bestalde, baliteke ikasle batzuentzat euskara ere isolatuta egotea, askotan ikastetxetik kanpo euskara ez baita existitzen ikasleen eguneroko bizitzetan. Ondorioz, gure bizitzan hizkuntza desberdinak izan arren, hizkuntza hauek ez dute elkarren artean eragiten. Liburuek bezala, hizkuntza bakoitzak bere mundua du eta badirudi ez dela beste hizkuntzekin komunikatzen.

Nire ikastetxean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Gabonetako postalen lehiaketa bat egiten zen, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasturte guztiek parte hartzen zuten eta, irabaziz gero, saria liburu bat zen, eta irabazlearen postala urte horretako Gabonetako postal ofizial bihurtzen zen ere (eta postala ikastetxe osoan banatzen zen eta familia guztiei bidaltzen zitzairen). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eman nituen lau urteetatik hiru aldiz irabazi nuen Gabonetako postalaren lehiaketa. Ordutik, konturatu nintzen marraztea gustatzen zitzaidala. Hala ere, ez nintzen berez marraztaile ona, baizik eta gaitasuna nuen marrazteko ideietan pentsatzea. Plastika ikasgaiaren arte era ezberdinei buruz hitz egiten zuen liburu batetik ikasten zen (itzalak, argiak, mosaikoak, proportzioak eta espazioa bezalakoak). Irakasgai hau interesgarria iruditzen zitzaidan, baina askotan zaila izaten zen marrazkiak kopiatzea. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako urte batean, nire klaseak robotikako proiektu bat egin zuen. Argiak erabiltzen eta objektuak mugitzen ikasi genuen baterien bidez. Gu taldeka banatu ginen, eta nire taldeak hiru dimentsioko paisaia bat egin zuen, ozeanoari buruzkoa. Paisaia itsasargi bat egin genuen, piztu eta itzaltzen zen argi batekin, eta horretaz gain, mugitzen zen itsasontzi bat egin genuen ere. Ni arduratu nintzen itsasargia egiteaz eta paisaiaren eta ozeanoaren hondoa margotzeaz. Pintzelarekin, pinturarekin, egur zatiekin, plastiko zatiekin eta beste materialekin lan egin nuen. Konturatu nintzen artea ez dela soilik marrazki bat kopiatzea.

Are gehiago, unibertsitatean hasi nintzenean, Itsaso Madariaga irakasleak emandako Arte ikasgaiaren material desberdinekin lan egin nuen berriro, eta sentimenduak adierazteko edozein material erabil daitekeela ikasi nuen. Sortzen dugun guztiaren bidez eta idazten, esaten eta margotzen dugun guztiaren bidez, ideia, emozio eta ekintza bat sortzen dugu, mezua zuzentzen diogun pertsonarekin komunikatzea helburu duena. Hori guztia dela eta, interes handia dut gure inguruko kulturak, hizkuntzen mundua eta ikasleen sormen eta arte ekintza aztertzeke. Uste dut denok dugula mezuak sortzeko eta adierazteko gaitasuna, baina, era berean, uste dut trebetasun hori ez dela garatzen ikastetxetan.

Ikasleei ikasten lagunduko dien irakaslea izan nahi dut. Izan ere, ziurtatu nahi dut ikasleek modu esanguratsuan ikasten dituztela kontzeptu guztiak. Gela bat sortu nahiko nuke, non elkarrizketa bat dagoen irakaslearen eta ikasleen artean, ikasleek

irakaslearengandik ikasteko, baina irakasleak ere ikasleengandik ikasteko. Espazio bat sortu nahi dut, non komunikazioa eta parte-hartze aktiboa modu esanguratsuan dauden. Onarpenerako, ikaskuntzarako eta elkarrizketarako leku bat.

3. LANAREN OINARRI TEORIKOAK

3.1. Kultura, teoria ekologikoa eta harreman parasozialak

Gu bizi garen mundua kultura desberdinez beteta dago. Kulturek definizioa eta zentzua eman diote munduari. Alegia, astebete batek zazpi egun dituela dioen nozioa gizakiak sortu du; izan ere, berez, zazpi egunak ez dira naturan existitzen, egun bakarra dago-eta, eguzkiaren argiarekin hasi eta gauaren iluntasunarekin amaitzen dena (Kövekses & Balint, 2006).

Baina zer esan nahi du zehazki “kultura” hitzak? Chalmers eta Arias-en arabera (2003), kultura bat da hautemateko, sinesteko, balioztatzeko eta jokatzeko talde batek duen forma-multzoa. Are gehiago, Sacristán-en arabera (2001), kulturak “subjektiboa” izan behar du, hau da, gizakiek kultura interpretatu, gorde eta bereganatu behar dute oroitzapenen, liburuen, artelanen, ipuinen, etab. bidez; eta kultura zerbait subjektibo bihurtu ondoren, kultura gizabanakoaren artean partekatzen den elementu “bizia” bihurtzen da.

Jaiotzen garenetik, kultura baten barruan hazten gara, eta gure inguruko gauzei buruz ulertzen dugun guztia gure familien eta eskolaren bidez ikasten dugu. Pertsona bakoitza ekosistema baten barruan bizi da, eta Bronfenbrenner-ek teoria ekologikoa deitu zion. Teoria ekologikoaren arabera, gizaki bakoitza sistema batzuen barruan dago eta sistema bakoitza beste sistema baten barruan dago, tipula baten forma imitatzen duten geruzak sortuz. Sistema hurbilenetatik sistema zabalenetaraino joaten bagara, lehenik mikrosistema daukagu, gero mesosistema, exosistema eta, azkenik, makrosistema.

Gkonou et al. adituen (2017) arabera, Bronfenbrenner-en makrosisteman gizabanakoek ez dute aktiboki parte hartzen, makrosistema horren eraginpean baizik daude. Bestela esanda, gizabanakoek ezin dute bizi diren makrosistema aukeratu, makrosistema gizartea eta kultura bera baita. Beraz, jaioterriaren eta gizabanakoaren estatus sozioekonomikoaren arabera, gizarte batek edo besteak eragina izango du.

Herritarra makrosistemaren barruan dauden irudikapenekin harremanetan egoten da. Giza adimena gai da ikono eta irudikapen sinboliko eta abstraktuak ulertzeko. Are gehiago, pentsamendu abstraktua pentsamendu konkretu bihurtzen da irudimenaren erabilerari esker,

eta eraldaketa horrek ezagutza sortzera darama (Sammut, 2015). Ezagutza sortze honek hainbat forma izan ditzake, hala nola idazkera, ikonoak edota horma-irudi bat sortzea. Horrela, irudikapen hauek errealitatek kanpo daude, baina, aldi berean, errealitatea adierazten dute (McCloud, 1993, Hunt-en aipatua, 1999). Gaur egun, herritarrak irudietan murgilduta dauden gizarteetan bizi dira, eta, beraz, gu ikusizko kultura batean bizi gara, irudiak ikusten baititugu lanera goazenean, ordenagailuarekin gaudenean, pelikula bat ikusten dugunean, eta abar (Baylen & D 'Alba, 2015).

Nik esango nuke haurrak eta nerabeak irudiz inguratuta daudela sare sozialak erabiltzen dituztenean eta, zoritxarrez, harreman parasozialak dituztela. Dibble et al. (2016) adituen arabera, harreman parasoziala ikusizko edukia sortzen duen pertsona baten (adibidez, YouTubeko bideoak eta Instagrameko irudiak) eta ikusizko edukia kontsumitzen duen pertsonaren arteko harremana da. Kontsumitzailea bideoak egiten dituen pertsonaren zale bihurtzen da, eta, horrela, elkarrekintza parasoziala sortzen da, hau da, jarraitzaileak ikusizko edukia sortzen duen pertsonarekin harreman intimoa eta elkarrizketazkoa sortzen du, nahiz eta pertsona famatu horrek jarraitzailea ezagutzen ez duen (Horton & Wohl, 1956, Baylen & D 'Alba adituek aipatua, 2015). Harreman parasozial mota hauek kontsumitzaileen osasun mentala kaltetzen dute, pertsona ospetsuak jarraitzaileez baliatu ohi baitira, haien artean adiskidetasuna dagoela sinetsaraziz.

3.2. Komunikabideak, herritarrak eta komunikazioa

Horrenbestez, komunikabideek sare zabalagoak sortu dituzte. Bizi garen espazioan gehiago komunikatu eta elkarreragin badezakegu ere, ikus dezakegu espazioa ez dagoela berdin okupatuta eta banatuta (Sacristán, 2001). Herrialde batzuetan ikasle gehienek mugikorrek eta ordenagailuak dituzte eta, aldiz, beste herrialde batzuetan oraindik biztanle gehienek ez dakite ez irakurtzen ez idazten, eta bi egoera hauen arteko tartea handitzen ari da egunero. García Gil eta Peña Méndez-en arabera (2006), hiria espazio bizidun izatetik espazio itogarri izatera bihurtu da; bizikidetzarako gunetik borrokarako eta indarkeriarako gunera. Hortaz, gu desberdintasunez betetako mundu batean bizi gara, eta helburua ez da desberdintasun horiek ukatzea, baizik eta jendeari desberdintasun horiek balioztatzen eta haiekin bizitzen erakustea (Poncela López & Consello da Cultura Galega, 2018).

Gizarte garaikidean, Aparici-k (1993) dioen bezala, komunikabideak gizarte-ezagutzaren sortzaile eta bitartekari garrantzitsuak dira; are gehiago, aditu honen arabera, gaur egungo herritar guztiek "iragazki kritikoak" sortu beharko lituzkete irudiak aztertzeko, bai eta komunikabideek errealitatea, erabiltzen dituzten teknikak eta

komunikabideek eragiten dituzten ideologiak ulertzeko ere. Hizkuntza da gizakiaren interakzio-bide nagusia, eta, elkarrekintzaren bidez, gizarte-harremanak sortzen dira (Block & Cameron, 2002). Hizkuntzaz gain, "ikusizko komunikazioa" ere badugu, hitzezko hizkuntza baino bizkorragoa, konplexuagoa eta sotilagoa dena. Are gehiago, ikusizko komunikazioaren bidez, guk sinbolo komunitarioak sortzen ditugu, iragana gogorarazten laguntzen digutenak (García Gil & Peña Méndez, 2006). Gaur egun, gizakiak, sare lokaletan harremanez gain, komunikazioa eta pertsona-kopurua askoz ere zabalagoa da; horren ondorioz, komunikazio-sareak tokiko sareak baino handiagoak dira (Block & Cameron, 2002). Ondorioz, komunikabideek nortasun globalak eraikitzen lagundu dute (Juanola Terradellas & Barragán Rodríguez, 1999).

Gkonou et al. adituek (2017) Sigmund Freud aipatzen dute, esaten duena gizakiok ez garela kapazak ez komunikatzeko. Izan ere, hitzekin komunikatzen ez bagara, hatzekin komunikatzen gara, azalaren poroekin... (Gkonou et al., 2017, Freud, 1932, aipatuz). Halaber, komunikazioak rol nagusia du gizarte-irudikapenen ekoizpenean, eta gizarte-irudikapen berri eta zahar hauek zentzua ematen diete eguneroko gauzei eta gertaerei (Sammut, 2015). Beraz, hizkuntza eta irudia lehen begiratuan dirudien baino konplexuagoak eta dimentsio anitzekoak dira (Ehmer et al., 1977). Menano eta Fidalgo (2017) adituek Holland (2004) aipatzen dute. Azken honek azaltzen duenez, haurrak ez dira irudien sortzaile gisa ikusten, hau da, haurrak haien burua beraien nahi duten moduan aurkezteko ahalmenik ez duten talde gisa ikusten dira eta, ondorioz, isildutako talde bihurtzen dira, ez baitira adierazpen eta irudi baliotsu eta esanguratsuen sortzaile gisa ikusten.

3.3. Ikusizko alfabetizazioa

Honenbestez, ikusizko komunikazioak ikusizko alfabetizaziora eramaten gaitu. Hitchens-en aburuz (1984, Aparici-k aipatua, 1993), "ikusmen-alfabetatze" kontzeptua informazio-saturaziotik sortu zen (telebista sortzearekin hasi zena); eta, aditu horren arabera, ikusmen-alfabetatzea komunikazio-fenomenoarekin zerikusia duten fenomenoak ikusizko zeinuen bidez deskribatzeko erabiltzen da. Ikusizko alfabetizazioaz gain, *media literacy* eta *visual literacy* ere baditugu, komunikabideen alfabetatzea eta alfabetatze bisualak direnak (Aparici, 1993).

Pertsona bat ikusizko alfabetatu bihurtzeko, pertsonak ikusmenarekin eta pertzepzioarekin esperientziak izan behar ditu; eta gizakiak zenbat eta esperientzia gehiago izan, orduan eta errazagoa da ekintzak, objektuak, eskemak eta sinbolo bisualak

interpretatzea, eta interpretazio honek, hortaz, haien ikusizko komunikazioa sortzera eramaten du (Aparici, 1993). Beraz, gomendagarria da ikasleak txikitatik hasia haien inguruko irudiak aztertzen. Nire kasuan, ez nintzen bisualki erabat alfabetatu unibertsitatea hasi arte. Unibertsitateko irakasle batzuei esker, komunikabideek eta inguruko kulturak gure bizitzan duten benetako eragina ikusten hasi nintzen, eta irakasle gehienak arteko irakasgaiak ematen zituzten edo egiten zituzten jarduerak artearekin zerikusia zuten. Hala nola, edertasunaren kontzeptuari buruzko lana egin behar izan nuen eta, besteak beste, lanean ikertu behar nuen nola ikusten den edertasuna hainbat kulturatan, eta nola irudikatu den edertasuna orainaldiko eta iraganeko koadro eta eskultoretan.

Komunikabideen irakaskuntzari eta ikusizko komunikazioari buruz hitz egin ondoren, kodeei buruz hitz egiten nahiko luke. Burgoon et al.-en (2016) arabera, kodeak hauek dira: seinale-sistema bat, eta seinale horiek ulertu ondoren, guk mezua, irudia edo ulertu nahi dugun beste edozein elementu “dekodifikatzen” dugu. Carroll-en (1998) arabera, kultura desberdinek haien kode moral landuak gogorarazten dituzte, bertan bizi diren kulturarako egokiak diren justizia-bideetatik eragileak gidatzen dituzten jokaerak deskribatzen dituztenak.

3.4. Hizkuntzak, antsietate linguistikoa eta iragazki afektiboa

Hizkuntzaren gaian sartuz, hizkuntza-irakasleek hautatu eta kodifikatu behar dituzte ikasleei transmititu nahi dizkieten arauak; adibidez, gramatika-mota eta eredu gisa hartu nahi den ahoskuntza aukeratzen dira (Block & Cameron, 2002). Celce-Murcia (2001) adituak azaltzen du ez dagoela hizkuntza bat irakasteko metodo bakar bat, ezta guztietan onena den metodorik ere. Strevens (1977, Celce-Murcia-k aipatua, 2001) ados dago honekin; izan ere, aditu honek azaltzen digunez, irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren inguruabar konplexuak direla eta, ez dago arrakasta izan dezakeen metodo bakar bat, arrakasta lortzeko hainbat ikasle, irakasle, helburu, metodo, material, klase eta lorpen-irizpide mota baitaude.

Ikastetxeen barruan, Block eta Cameron-ek (2002) esaten digute irakasleek irakasten duten hizkuntza “hizkuntza eskolatua” dela. Hizkera mota honen ezaugarria da ikaskuntza kodeak eta komunikazio kodeak erabiltzea eguneroko komunikazioa baino zabalagoa izaten dela, edo bestela esanda, lagunarteko komunikazioa baino zabalagoa eta akademikoagoa da. Hitezkoa ez den komunikazioari dagokionez, oso erabilgarria da, batez ere hizkuntza bateko irakaskuntza-eskoletan. Are gehiago, ikasleak guri helarazten dizkigun hitzezkoak ez diren kodeei esker, irakasleak ikus dezake ikasleak antsietatea duen ala ez;

termino teknikoagoetan, antsietate idiomatikoa edo *language anxiety* (Gkonou et al., 2017) deitzen zaio. Gkonou et al.-en arabera (2017), hitzezkoak ez diren kode-motak honako hauek izan daitezke: kode kinesikoak, hala nola keinuak eta gorputz-jarrera; aurpegiko espresioak, irribarrea eta begien mugimendua bezala; eta kode bokalikoak (hitz honek adierazten du nola erabiltzen den ahotsa intonazioari eta tonuari esanahia emateko, besteak beste).

Gkonou et al. (2017) Bailey-k (1983) egindako ikerketa batean, ikasleek egunerokoak idatzi behar zituzten. Egunkari horiei esker, irakaslearen eta ikaslearen arteko harremanek antsietatea eragin dezaketela jakin zen. Are gehiago, Bailey-ren arabera (1983, Gkonou et al.-en aipatua, 2017), ikasleak negatiboki konparatzen dira beste ikasle batzuekin eta irakaslearekin antsietatea sor ditzaten harremanak dituzte ere, eta bi faktore hauek antsietate-sentimenduak eta ikasketa-esperientziaren gaineko sentimendu negatiboak eragiten dituzte.

Ikasgeletan antsietatea, gatazka eta estresa gutxitzeko estrategia ona adimen emozionala garatzea da. Frogatuta dago antsietate linguistiko handia duten gizabanakoek adimen emozional gutxi dutela; adimen emozional handia dutenek, berriz, antsietate linguistiko txikiagoa dute, batez ere atzerriko hizkuntzetan (Dewaele et al., 2008; Dewaele, 2013; Goleman, 2005; Gkonou et al.-en aipatutako adituak, 2017). Salovey et al.-ek kontatzen digutenez, inteligentzia emozionala besteen sentimenduak eta sentimenduak ulertzeko trebetasuna da, eta sentimendu horiek pentsamendu eta ekintzarako informazio-gida gisa erabiliko dira (Salovey et al., 2011, Gkonou et al.-en aipatua, 2017).

Bigarren hizkuntza ikasteari dagokionez, faktore batzuk bigarren hizkuntza ikastearekin lotuta daude. Baker adituaren arabera (2001), antsietatea, autoestimua eta norberaren burua sortzea eta ikasgelako lehiakortasuna dira faktore batzuk. Hainbat autorek hizkuntza berri batek dituen faktore psikologikoei buruz hitz egiten digute. Hizkuntza bat ikastea, ikasleek hizkuntza-antsietatea senti dezakete, hizkuntza-shock bat (hizkuntza erabiltzean nahasmendua izatean oinarritzen dena), estres-sentimenduak, ikaslearen kulturaren eta ikasten ari den hizkuntzaren kulturaren arteko desberdintasunen ondorioz (termino zehatzetan, shock kulturala deitzen dena), eta lotsa ere senti dezakete (Baker, 2001; Schumann, 1978; Krashen, 1985).

Horrelako faktoreak saihesteko, Dulay eta Burt adituek (1977) iragazki afektiboari buruz hitz egiten digute. Iragazki afektiboa estrategia ona da hizkuntza-antsietatea murrizteko; izan ere, ikasle guztiek iragazki afektibo bat dute, hizkuntzaren aurreko jarrerak,

motibazioak, auto-konfiantzak eta antsietateak osatua. Irakaslearen helburua iragazkia baxu mantentzea da, ikasleek hizkuntzaren aurrean emozioak eta jarrera positiboak izan ditzaten.

Egia da globalizazioaren fenomenoak aldatu egin dituela hizkuntza bat ikasteko baldintzak, adibidez, gero eta jende gehiagok ikasten baitu hizkuntza bat arrazoi ekonomikoengatik (Block & Cameron, 2002), eta uste dut, munduan zehar, batez ere ingelesarekin gertatu dela. Espainian eta beste herrialde batzuetan, ingelesa beste irakasgai bat da curriculumean, eta, Block eta Cameron (2002) adituen arabera, testuliburuak ingelesa irakasteko diseinatuta egon arren, liburu horiek oso landuta dauden eraikin kulturalak ere ekartzen dituzte klaseetara, testuliburuak mezu kulturalak ere badituztelako.

Antsietatea eskoletan gertatzen den fenomeno erreala da, eta hizkuntza-antsietateak, ez du bakarrik jarduera eta ariketa zehatzetan kalte egiten, baizik eta antsietateak ere kalte egin diezaioke ikasle baten bizitzari eta bere bizitza-kalitateari (Gkonou et al., 2017). Hizkuntza-antsietatea gutxitzeko edo saihesteko, Gkonou et al.-ek (2017) hizkuntza-irakasle berrientzako iradokizun batzuk proposatzen dizkigute. Lehenik, proposatzen dute antsietateari eta beste sentimendu batzuei buruz hitz egitearen naturalizazioa bultzatzea. Bigarrenik, ikasleei haien ikaskuntzari buruzko itxaropen errealistak sortzen laguntzea eta, hirugarrenik, talde txikitan eta binaka lan egin, ikasgela osoarentzako jardueren orde. Azken iradokizun honek lagungarria da bai ikasleentzat, baina baita irakaslearentzat ere, azken honek hobeto ikus dezakeelako klasean antsietatea dagoen ala ez.

3.5. Mekanismoak, emozioak eta teknologia

Bronfenbrenner adituaren teoria ekologikora bueltatuz, Sammut-en arabera (2015), mekanismo mota desberdinak daude, Bronfenbrenner-en teoriarekin zerikusia dutenak. Mekanismo bat "ekintza-prestakuntza" izeneko da, mekanismo indibidual gisa definitzen dena; mekanismo honetatik ekintzak sortzen dira, eta ekintza hauek, aldi berean, aurrekari (eta bultzatzaile) gisa sinesmenak, jarrerak eta nahiak dituzte. Nire ustez, esanguratsua da ikasleei modu batera edo bestera zergatik jarduten duten ulertzen lagunduko dieten jarduerak diseinatzea. Hau da, ikasleei ulertaraztea gure ekintzak iraganeko esperientzia eta sinesmenetatik datozela. Horrek ikasleei lagundu diezaike haien burua hobeto ezagutzen eta ikasleek ikus dezaten ekintza batzuek ez dituztela beti beste kultura-talde batzuekin bat egiten. Beraz, hemen has gaitezke kulturantzatasunari buruz mintzatzen. Kultura anitzeko hezkuntzak ez du soilik kultura desberdinetako ikasleen parte-hartzea nahi, baizik eta ikasle

horiek oinarrizko kontzeptuei buruz gogoeta egitea, hala nola “kulturari” eta “kide izateari” buruz.

Hainbat adituk azaldu dute hezkuntzan prozesu kognitiboak eta emozionalak egon behar direla, ikasleak bizi diren gizarteko herritar eta berritzaile bihurtzeko (Menano & Fidalgo, 2017; Damasio & Damasio, 2006; Riley, 2012). Are gehiago, Riley (2012) adituaren arabera, prozesu emozionalak eta kognitiboak ikasgelan integratzeko modu on bat artearen eta teknologiaren bidezkoa da; bi ikasgai horien bidez, ikasleek haien kontzientzia soziala eta besteekiko harreman emozional eta soziala gara ditzakete.

Hala ere, Menano eta Fidalgo (2017) adituek ere azaldu dute ikasgelan bitarteko digitalak sartzea oztopo bihurtzeko ikaskuntza kognitiborako eta artistikorako. Eragozpen hori gerta daiteke bitarteko digitalak oker sartu direlako, hau da, adibidez nik ikusi dut ikasgela batzuetan ordenagailuen erabilera testuliburuaren ordezkotzat hartu dela, eta ez testuliburuaren berritzaile. Are gehiago, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasgelako adibidea jarrita, testuliburuak ez ziren paperezkoak, digitalak baizik, eta horrek esan nahi du ikaskuntza ez dela berritu, baizik eta testuliburuaren formatu batetik bestera lekualdatu dela, edukien eskurapenean aldaketa esanguratsurik egin gabe.

Bestalde, bitarteko digitalak sartzea ere oztopo izan daiteke, askotan informazio-iturriak faltsuak edo engainagarriak direlako, eta ikasleak ez direlako gai aurkitzen dituzten datu guztiak behar bezala bereizteko eta hautatzeko; izan ere, horretarako, Heziberri 2020 planean agertzen den gaitasuna garatu behar dute lehenik, ikasteko eta pentsatzeko konpetentzia deritzona, baliabideak modu estrategikoan ulertu, interpretatu eta erabiltzean oinarritzen dena (236/2015 Dekretua, 2016). Beraz, ikasleek ordenagailuak erabiltzen badituzte baina gaitasun hori aldeztetik garatu ez badute, ordenagailuak ikaskuntzarako oztopo bihurtzen dira.

3.6. Artea, kodeak, teknologia eta konpetentziak

Nire ustez, ikasleak ez badaude zerbait artistikoa sortzera ohituta, hobe da taldean egindako artelan batekin hastea; izan ere, horma-irudiak diseinatzeak eta egiteak talde barruko sozializazioa eta kohesioa areagotzen ditu, arazoak konpontzeko trebetasuna garatzen da eta autoestimua areagotzen da (Buchalter, 2004). Gauzak horrela, Sammut-ek (2015) mekanismo “eraldatzailerak” ere aipatzen du. Mekanismo honetan, banakako ekintzek emaitza (edo erantzun eta ondorio) kolektiboak sortzen dituzte. Emaitza kolektibo bat egiteko, ideia aproposa da artearekin zerikusia duen jarduerak bat prestatzea.

Lehen begiratuan, artelan asko ez dira oso konplexuak. Izan ere, artearen eta teknologiaren arteko hibridazioak bultzatutako hainbat teknika artistikoren nahasketa gero eta handiagoa da. Ondorioz, gero eta artelan gehiago ikus ditzakegu, enpresek sortzen dituzten logoak gogorarazten dizkiguten lerro edo kolore oinarrizkoen osatuta daudenak. Logoez aparte, adibidez Whatsapp aplikazioak *stickers*-ak ezagutarazi dituzte, kolorez betetako emotikonoak direnak, gutxi gorabehera sinpleak direnak eta komunikazioa errazten dutenak, batez ere zirrara bat adierazteko oso tresna onak dira. Hainbestez, karratu bat edo triangulu bat bezain gauza sinpleak edozein esanahi har dezake, irudi hori testuinguru baten barruan dagoenean.

Jakinda gizarte bakoitza zeinu eta sinbolo desberdinen bidez komunikatzen dela (Read & Mantovani, 1999; García Gil & Peña Méndez, 2006), eta jakinda gero eta informazio gehiago dugula eta beste pertsona batzuekin komunikatzen garela, interpretazio, sinbolo eta kultura eta azpikultura desberdinekin topatzen gara. Urretabizkaia Lasak azaltzen digun bezala, gizakiak komunikatzeko izan duen lehenengo era bat marrazkia izan da:

Gizakiak betidanik izan du komunikatzeko beharra eta, horretarako, bide asko aurkitu ditu. Elkarrekin komunikatzeko erabiltzen dugun baliabide nagusietako bat irudien ekoizpena dugu, marrazketa. Paleolitoko garai urrun haietan zuzenean hatzekin marrazten zituztenetik hasi eta gaur egunera arte horrela izan da edozein aro eta kulturatan. (Urretabizkaia Lasa, 2008, 11. orr.)

Marín Viadel eta Álvarez Rodríguez (2003) adituek azaltzen digutenez, arte garaikideak pintura erabiltzen du ideia artistikoa adierazteko bitarteko gisa, eta, aurrerapen teknologikoa eta aurrerapen artistikoa direla eta, pintura argazkigintzarekin eta arte elektronikoarekin konbina daiteke, besteak beste, ideia artistikoa sortzeko.

Ikasleekin arte-jarduerak egitea da nire asmoa, eta arte-jarduera hauek komunikazioa eta autoadierazpena dute helburu. Hala ere, zentzua duen eta eskolako curriculumerako baliagarria izan daitekeen zerbait artistiko sortzeko, ikasleentzat giro eroso eta segurua sortu behar da lehenik. Jovchelovitch-ek (1995) "eremu publikoei" buruz hitz egiten digu, meditaziorako eta komunikaziorako espazioak baitira, eta hauetan "ni" kontzeptuak eta "bestearen" kontzeptuak bat egiten dute identitateak eta irudikapenak sortzeko.

Lehen Hezkuntzako arte-hezkuntzan, askotan, artearen teknikan eta historian kontzentratzen da. Horrez gain, ikaskuntza eta sorkuntza indibidualak dira, eta, beraz, ikasleak bere ezagutzak eta teknikak hobetzen ditu. Horregatik, uste dut beharrezkoa dela arreta gehiago jartzea arte-hezkuntzaren alderdi sortzailean eta kolektiboan.

Gero eta aditu gehiagok hitz egiten digute ikasleak haien ikaskuntzako partaide aktibo bihurtzeari buruz. Ikasleak besteekin eta bere buruarekin komunikatzen ikas dezan, kontzeptu zehatzak ikasi eta objektu jakinak ikusi behar ditu, hala nola eskulturak; baina ikasleak kontzeptu zabalagoak ere ikasi behar ditu, hala nola natura eta edertasuna; hartara, ikasleek haien sormena garatu eta esperientzia artistikoak sor ditzakete (Tatarkiewicz, 2002).

Teknologiak aurrera egin duenez eta gero eta eragin handiagoa duenez haurren eta gazteen bizitzan, nire ustez garrantzitsua da eskoletan “ikusizko komunikazioa” aztertzea. Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumean ikusten denez, ez dago horri buruzko informazio askorik, nahiz eta beste herrialde batzuetan, hala nola Britainia Handian, Australian eta Kanadan, ikusizko komunikazioa eta komunikabideak aztertzea curriculumaren parte den (Aparici, 1993).

Gauzak horrela, uste dut arte-hezkuntzaren eta ikusizko komunikazioaren alde ona dela biak ez direla irakasgai itxiak, beste irakasgai batzuekin konbina daitezkeen irakasgaiak baizik. Are gehiago, tresna artistiko eta komunikatzaile adierazgarriak erabiliz, gertaera historikoei buruzko edukiak sor ditzakegu, besteak beste. Horrela, edukiak ez dira bakarrik ikasten, sortu ere egiten dira, jarduera sortzaileak erabiliz. Bestetik, gai bat emateko denbora handirik ez badago, erabil daitezkeen arte-jarduerak jarduera komun barruan egon daitezke. Eta jarduera “komunak” esaten ditudanean, hitz egiten dut, adibidez, idazlanei, eskemei eta laburpenei buruz. Besteak beste, jarduera on bat litzateke ikasleek Frantziako iraultzaren gertaerei buruzko idazlan objektibo bat idatzi ordez, ikasleek Frantziako iraultzako gertaerak azaldu ditzakete, baina haiek garai hartan bizi izan balira bezala idatz dezakete. Jarduera honen bidez, ikasleek gertaerei buruz ikasten dute, baina haien irudimena ere erabiltzen dute garai hartako pertsonen bizitza nolakoa zen eta garai hartako gertaera garrantzitsuak nolakoak ziren jakiteko.

Chalmers eta Arias-ek (2003) azaltzen digutenez, kultura anitzeko hezkuntza aplikatzea ez da nahikoa herrialde desberdinetan jaiotako eta kultura desberdinetatik datozen ikasleek osatutako eskoletan, baizik eta kultura anitzeko hezkuntza edozein klasetan aplikatu daiteke, “homogeneoagoak” bezala ikusten diren klasetan ere bai. Nahiz

eta Chalmers eta Arias-ekin (2003) ados egon, kulturantzatasuna edozein ikastetxean aplikatu daitezkeela azaltzen dutenean, ez nago ados “klase homogeenak” kontzeptuarekin. Hau da, ez dut bat egiten klase eta kultura “homogeenak” daudela esatearekin, uste baitut gizabanako bakoitzak bere kultura duela, eta, horren ondorioz, adibidez, nahiz eta herrialde berean jaioak bi gizabanako izan, haien arteko kulturak erabat desberdinak izan ahal dira.

Honenbestez, kultura anitzeko hezkuntzaren helburuetako bat errealitatearen bertsio bakar bat ez dagoela irakastea da. Historiako liburuek kontatzen dituzten heroiak zapaltzaileak izan daitezke herrialde bateko bertakoentzat, historiako gaizkileak izan daitezke. Hori da Latinoamerikara iritsi ziren konkistatzaile espainiarren kasua, konkistatzaile horiek kristau bihurtu zuten bertako jendea.

Ikasleak gizartea “ikustera” eta gizartean parte ez hartzea ohitu dira (Sacristán, 2001), ikasle horiek zerbait aldatzeko “gai” ez direla sentitzen baitute, eta bakarrik ere sentitzen dira. Horregatik, garrantzitsua iruditu zait ikasleek Greta Thunberg edo Joshua Wong bezalako pertsonak ezagutzea. Pertsona hauek oraindik bizirik daude, eta haien ideiak babesten hasi ziren pertsona bakar bat izaten, eta, azkenean, aktibista sozial hauek pertsona gehiago izan dituzte atzetik, haien iritzia babesten eta baieztatzen dituztenak. Adibide honetan ikus daitekeenez, komunikatzeko teknologia behar bezala erabiltzen denean, Greta eta Joshua bezalako pertsonen haien herrialdeetan egiten dutena ikusteko aukera izan dezakegu, eta, pixkanaka, mundua aldatzen doazela ikus ahal dugu. Eta badakit “mundua alda dezakezu” esaldia agian ez dela oso errealista, baina beharrezkoa da ikasleek munduaren alde positiboa ikustea, batez ere berri eta eragin negatiboz inguratuta daudenean. Komunikabideetako berriak eta sare sozialek bultzatzen dituzten estandar sozialek atzean utzi behar dituzte ikasleek.

Jakinda gaur egungo komunitateak ez daudela bakartuta espazioan edo denboran, ideien, balioen, irudien, proiektuen eta gizarte-jardueren trafikoa dago, eta talde desberdinek eta zuzeneko irudikapenek osatzen dituzte “osotasun” edo “izate” inter-erlazioetan (Sammut, 2015; Sacristán, 2001); eta irudi eta talde batzuen irudikapen hori horma-irudiaren helburuetako bat izan da.

Horri lotuta, arteak ere bere kodeak ditu, artea ere komunikatzeko bide bat delako. Artelanek esanahi intrintseko eta estrintsekoak dituzte eta, Ávila Ruiz-en (2001) arabera, artelana begiratzen duen pertsonak “irakurketa-kode” batzuk eskuratu behar ditu, artelana ulertzeko eta dekodifikatzeko asmoarekin. Artelanen interpretazio hori kultura-testuinguruaren arabera aldatzen da. Hala ere, esanahia aldatu egiten den arren

behatzailearen interpretazioaren arabera, ikasleek inguruko “kultura-ondasunak” ikas ditzakete, eta, hala, arteak presentzia handiagoa izan dezake derrigorrezko irakaskuntzaren curriculumean (Ávila Ruiz, 2001).

Are gehiago, nahiz eta arte-lan batek interpretazio desberdinak izan, obra zein garaitan egin zen jakin ondoren, eta lanaren elementu guztiak aztertu ondoren, ikasleak errazago deszifratu ditzake ezkutatutako kode horiek. Izan ere, adibide bikaina izan daiteke Picassoren Guernica, koadro hau Espainiako Gerra Zibilaren irudikapena delako (Juanola Terradellas & Barragán Rodríguez, 1999) eta, hots, Espainiako Gerra Zibila adierazteaz gain, ikasleek koadroaren historia ezagutzen ez badute ere, oro har munduan gertatu diren gerren kritika eta irudikapena izan daiteke.

Jakinik artelana zeinuen, mezuen eta kodeen hizkuntza-egitura konplexua dela (Eco, 1972, Ávila Ruiz-ek aipatua, 2001), badira kode batzuk, ez bakarrik arte-diziplinekin zerikusia dutenak, baizik eta hizkuntzarekin, kulturetako kode moralekin (jokabide egoki eta desegokiei buruz) eta hitzezkoak ez diren kodeekin ere zerikusia dutenak ere (García Gil & Peña Méndez, 2002).

Heziberri 2020 planari dagokionez, lan ona egin dute kodeak erabiltzen. Izan ere, hitz egiten da hitzik gabeko komunikazioari buruz eta sortzen dituen kodeei buruz, esaten da artelanetan kodeak erabiltzen direla eta mezuak kode desberdinetan aurkezten direla ere aipatzen du. Heziberrik konpetentzia artistikoa du barne, zeinetan hizkuntza artistikoen lanketa egiten den. Artelanak komunikatzeko baliabide bezala ikusten dira, eta beste kulturekin harremantzeko tresnak direla esaten da (236/2015 Dekretua, 2016). Orduan, nahiz eta Heziberrin hau jarri, zergatik gero klaseetan ikasleek artearen historia eta arte tekniken ezaugarriak ikasten dituzte? Nire ustez, maisu-maistren asmoa ikasleek artea ulertzea dela. Hala ere, ikasleek artearen alderdi teorikoa ulertzea lortzen badute ere, ikasleek ez dituzte ezagutza horiek komunikazio- eta adierazpen-lan artistikoetan aplikatzen. Nire ustez, ikasleek ez dute aplikazio sortzailearen fasera iristen, arte-irakasleek ere ez dakite gai horri buruzko jarduerak nola egin. Izan ere, irakasleak artea behatzen den zerbait bezala ikusten ikasi zuen, eta ez egiten den zerbait bezala.

Heziberri 2020 planean agertzen diren gaitasunez gain, gaitasun soziokulturala ere aipatu nahi nuke. Gaitasun hori ez da Heziberri 2020 planean agertzen, baina plana elementu soziokulturaleri, komunitateei eta testuinguru soziokulturaleri buruz hitz egiten du. Gaitasun soziokulturala diziplinarteko eremuaren barruan dago, eta gaitasun hau hizkuntzaren erabileran agertzen diren arau sozialekin lotuta dago. Are gehiago, gaitasun

soziokulturala garatzeko, ikasi nahi duen hizkuntzaren testuinguru soziala ulertu behar du ikasleak. Testuinguru horren barruko elementu batzuk esanahiaren negoziazio aktiboa, parte-hartzaileen rolak, partekatzen den informazioa eta elkarrekintzak duen funtzioa dira, ez bakarrik hizkuntza-forman, baizik eta hitzik gabeko komunikazioan ere oinarritzen dena (Celce-Murcia, 2001; Cummings & Blatherwick, 2017; Baker, 2001).

Gaitasun soziokulturalari esker, ikasleak hobeto komunikatu daitezke beste ikasle batzuekin, gai baitira hizkuntza beraren barruan dauden desberdintasun kulturalak ezagutu eta onartzeko. Euskara eta ingelesa adibidetzat hartuta, euskararen kasuan, hitz eta aditz batzuen ahoskera eta erabilera aldatu egiten da eskualdearen arabera, eta “akelarre” bezalako hitzak ezin dira ulertu hizkuntzaren hiztunak hitzaren testuinguru kulturala ezagutzen ez badu. Bestalde, ingelesaren kasuan, hizkuntza eta, batez ere, ahoskera nabarmen aldatzen da herrialde batetik bestera. Izan ere, ingelesa munduko hainbat lekutan hitz egiten da, eta kultura bakoitzak bere ingelesaren sorkundea eraiki du.

4. LANAREN HELBURUAK

Lan honek lau helburu ditu, eta helburu hauek kontuan hartuta, hurrengo atalean azalduko diren metodoak diseinatu dira. Esan beharra dago bi arrazoi izan ditudala lanaren helburuak aukeratzeko. Alde batetik, nire interes pertsonalak izan ditut artearekin eta sentimenduen adierazpenarekin zerikusia duten jarduerak diseinatzeko orduan, txikitatik izan dudalako gai hauetan interesa. Bestalde, ikasleen beharrei erreparatu diet eta ikasleentzat interesgarriak eta beharrezkoak izan diren jarduerak egin ditut. Hori dela eta, egon naizen bi ikastetxetan ikusi dut gabeziak daudela hizkuntzen hezkuntzari, artearen hezkuntzari, edukiak barneratzeari eta komunikabideei buruzko hezkuntzari dagokienez.

Beraz, lan honen lehen helburua ingelesak ikasleen bizitzetan duen rola zein den jakitea da. Lehen helburu honekin, ikastetxe honek erabilitako metodoaren bidez ikasleek eskolatik kanpo ingelesaren presentzia hobetzea lortu duten jakin nahi da.

Gero, lan honen bigarren helburua ikusizko kodeek ikaskuntza errazteko duten eraginkortasuna ikustea da. Zehazki, gustatuko litzaidake ikustea zer-nolako eragina duen horrelako kodeak erabiltzeak testuliburuaren barruan dauden edukiak irakasteko. Era berean, komikiak erabiltzeak ikasleen motibazioan duen eragina aztertu nahi nuke.

Hori esanda, hirugarren helburuak ikertzen du arte irakasgaia baliabide eta tresna egokia den emozioen hezkuntza lantzeko. Hau da, hezkuntza emozionalaren barruan hitzen

bidezko adierazpena dugula jakinda, hitzik gabeko adierazpena ere badago. Nire ustez, adierazpen artistikoa eta adierazpen emozionala elkartzeak hobeto komunikatzen lagun diezaieke ikasleei, eta uste dut honek batez ere besteekin sozializatzeko zailtasunak dituzten ikasleei lagun diezaiekeela.

Azkenik, lan honen laugarren helburua diziplinartekotasuna aplikatzea da, Plastika irakasgaia eta Gizarte Zientziak irakasgaia lotzen dituen artelan baten bidez. Zehazki, artelana horma-irudi kolektiboa izango da, eta horma-irudiaren alderdi artistikoari dagokionez, marrazkia, pintura eta collage teknika erabiliko dira. Aldiz, muralaren alderdi sozialari dagokionez, artista eta aktibista sozial ezberdinak aurkeztuko dira.

5. LANAREN METODOA

Hasteko, metodoaren atal hau bi fasetan banatu da. Esan bezala, lehenik eta behin behaketa eta ikerketa bat egin da kodeen erabilgarritasuna ikusteko eta, hortik abiatuta, esku-hartze bat burutu da.

Lehenengo faseari dagokionez, taula baten bidez adierazi dut fase honen egitura:

Behaketa eta ikerketaren fasea			
JARDUERAK	Ingelesari buruzko galdetegia	Natur Zientzietako unitatea	Komikiak
HELBURUAK ETA TREBETASUNAK	Ingelesaren rola aztertu eta hizkuntza-kodearen analisia egin.	Testuliburuaren edukiak ikusizko kodeak erabiliz irakatsi eta ikasketa aktiboa sustatu.	Komunikazio-kodeak aztertu eta ikasleen hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia (236/2015 Dekretua, 2016) arakatu.
IRAKASGAIK ETA ARLOAK	Ingelesa irakasgaia eta ingelesa irakasteko metodologia berriak.	Natur Zientzietako irakasgaia eta unitate bat irakasteko ikusizko baliabideak, paperezkoak eta digitalak.	Gaztelania irakasgaia eta komikien sorrera ikasleen motibazioa indartzeko.
SAIOAK ETA IRAUPENA	Saio bat, ordu erdiko iraupena.	Ordu bateko hamalau saio, bost astetan zehar egin direnak Natur Zientzietako irakasgaien.	Ikasleek ordu bateko saio bat izan zuten komikiak hasteko, eta gero etxean bukatu behar zituzten.
ERABILITAKO HIZKUNTZA	Galdetegia gaztelaniaz idatzita dago.	Euskara.	Gaztelania.

LEHEN HEZKUNTZAKO MAILA	5. maila.	6. maila.	6. maila.
IKASLEEN KOPURUA	43 ikasle.	23 ikasle.	23 ikasle.
DATA	2021eko urtarrila eta apirila bitartean.	2021eko urria eta abendua bitartean.	2021eko urria eta abendua bitartean.

Taula 1. Lehenengo fasearen irudikapena

Honen ostean, bigarren fasea adierazteko taula bat ere egin da:

Esku-hartzearen fasea			
JARDUERAK	<i>Pertsona bikaina</i>	Tximeleta Efektua	<i>Gure Mundua</i> murala
HELBURUAK ETA TREBETASUNAK	Autokontzeptuaren eta adierazpenaren esplorazioa.	Ekintza-erreakzio efektuaren lanketa eta emozioen erregulazioa.	Hurbileko eta nazioarteko gizarte-eremua hobeto ezagutzea, eta adierazpen artistikoa eta komunikazio-trebetasuna garatzea.
IRAKASGAIK ETA ARLOAK	Arte-hezkuntza eta emozioen hezkuntza.	Arte-hezkuntza eta emozioen hezkuntza.	Arte-hezkuntza eta Gizarte Zientziak irakasgaia
SAIOAK ETA IRAUPENA	Hiru saio, ordu bateko iraupena.	Hiru saio, ordu bateko iraupena.	Sei saio, ordu bateko iraupena.
ERABILITAKO HIZKUNTZA	Euskara.	Euskara.	Euskara.
LEHEN HEZKUNTZAKO MAILA	5. maila.	5. maila.	6. maila.
IKASLEEN KOPURUA	19 ikasle.	22 ikasle.	23 ikasle.
